

AITA PATXI ARRATIAN

ARRATIA

Aurten ehun urte dirala
Aita Patxi jaio zala.
Albiste hauxe zabaldu jaku
Arratian bala-bala;
zelan guk itxi ospatu barik
geure aingeru leiala!

KOLAZIÑO

Aita Patxik pozik diño:
“Maite dot nik Kolaziño.
Sendoak ziran gure arteko
maitasun ta deboziño.
Orain zerutik zuentzat dira
mila grazi, bendiziño”.

LEMOA

Zu, Aita Patxi, Lemoan
beti zaitugu gogoan.
Gure bizitzan gura zaitugu
guri laguntzen alboan;
gero leku bat prestau eiguzu
zeruan zeure ondoan.

IGORRE

Igorren, zu Aita Patxi
etxeko zaitugu kasi.
Zenbat gauza on zugar genduzan
ikusi eta ikasi!
Egizu onak izan gaitezkan
ta zerua irabazi.

DIMA

Aita Patxiren gomuta
Diman ez dago ahaztuta.
Barrero ere gaur entzun dogu
Zeruko zure turuta:
“Eup, Dimostarrok! Entzun ta gora
Jesus deika daukagu ta.”

ZEANURI

Zeanuri euskalduna
Aita Patxiren laguna!
Jainkoagandik lortu deizula
bakea ta osasuna;
sinismenari sendo eusteko
hau da eskatzen deutsuna.

ZEBERIO

Aspaldiko Zeberio,
agur eta pozkario!
Aita Patxiren lagun ziran ta
lagun zara zu oindio;
holango lagun batek zeruane
ez deutsu gitxi balio.

ARRATIA

Badihardugu kantari
Aita Patxi maiteari.
Badakizu zer dan autostopa,
orain geu gara gidari,
zeu izendatzen zaitugu pozik
ARRATIAKO ZAINDARI.



A. Martzel